

# Antton Olariagaren laguntzaz, 'Franti' xelebrea berpiztu du Karlos Linazasorok

Arrate Egañak eta Mari Mar Agirrek, berriz, ipuin txinatar eder bat sortu dute elkarlanean

== NEREA AZURMENDI

**DONOSTIA.** Arrate Egaña idazleari lagun batek esan zion Mari Mar Agirrekin batera osatu duen 'Dragoia' albuma Gabonetarako opari bikaina dela, liburu bat izateaz gain. Karlos Linazasorok eta Antton Olariagak ekarri duten 'Nuvolari plaza' ere, liburua izanik, erabateko oparia da, et ez soilik hautentzat, bata zein bestea Erein argitaletxeak adin txikiko irakurleei zuzendutako sailetan kaleratu baditu ere. Mandolina izenekoan Linazasoro/Olariaga tandemarena, Albumak delakoan Egaña eta Agirrerena.

## Olariaga hiri ezezagunean

Frantisek Abravanel Klee, Franti, ez da atzo goizeko pertsonaia. Aspalditxo sortu zituen Karlos Linazasorok Matteomiglia herri bitxi-ko funtzionario zahar xelebrea eta edozer gertatzea posible den herri-ko gainerako biztanleak. 'Franti' liburuan jaio zen, Jokin Mitxelena eman zion itxuraz. 'Lau ipuin matteomigliar'-en azaldu zen berriro, orduan ere Mitxelena irudi-

katua. 'Nuvolari plaza' honetan, erretiroa hartu gabe jarraitzen du Frantik, Gustav alkatearen esanetara, hurrena konpontzea tokatuko zaionaren zain. Eta Matteomiglia ezagutzen duen edonork dakit hor edozer gauza gerta daikeela, pasadizo guztiz arrunta baita Frantiren herrian beste edonon gauzarik estrainioena izango litzatekeena. Egia esan, oraingo honetan Nuvolari plaza eta, apika, herriko beste plaza batzuetan gertatzen dena ez da tamalez erabat ezohikoa. Ezohikoa, zoritxarrez, Linazasorok asmatutako herrian ohiko arazo bati emango dioten irtenbidea da.

Matteomiglia lehenik ere baze- goen beraz literaturaren mapan, baina Olariaga bertan egon gabea zen, eta Linazasororen testua jasotakoan bisitatu zuen aurreneko aldiz Nuvolari plaza: «Sartu nintzen plazaren erdian, aber zer pasatzen zen, ezagutzen ez duzun hiri batera iristen zarenean bezala». «Via libre» hartu eta, idazlearekin harremanetan jartzeko tentazio guztiak gaitzitu, Matteomiglia berri bat eraiki du, Franti berrasmatu du, ederkierari batera kontzesiorik egin gabe, sekulako indarra duten ilustrazioak sortuz. Haurrak, hain zuzen, ondo ezagutzen ditu ilustratzaileak, eta badaki askotan hel-



Ezkerretik eskuinera, Mari Mar Agirre, Amaia Egaña, Karlos Linazasoro eta Antton Olariaga. == MICHELENA

duak baino askoz ere begirada helduagoa dutela.

Barruan zer zeukan ez zekien «kajak eman didan aukerarekin oso pozik nago», esan zuen Olariagak. Karlos Linazasoro, zer esanik ez. Liburua 8-10 urteko neska-mutikoei zuzendutako sail batean kaleratu badute ere, pena da hartzaile 'ofizialen' esku uztea aurretik testua eta ilustrazioak dastatu gabe.

## Ipuintxo txinatarra

Linazasorok eta Olariagak ez bezala, elkarrekin lan egin dute Arrate Egañak eta Mari Mar Agirrek 'Dragoia' osatzeko. Maiz batera arituak izanik, ondo ezagutzen eta ulertzen dute elkar idazleak eta ilustratzaileak. Oraingo honetan, elkarlanaren emaitza album dotore bat izan da, orrialde beteko ilustrazioari eraba-

## 'NUVOLARI PLAZA'

Idazlea: Karlos Linazasoro.  
Ilustratzailea: Antton Olariaga.  
Argitaletxea: Erein.  
Orrialde kopurua: 40.  
Salneurria: 8,90 €



## 'DRAGOIA'

Idazlea: Arrate Egaña.  
Ilustratzailea: Mari Mar Agirre.  
Argitaletxea: Erein (Albumak bilduma)  
Orrialde kopurua: 32.  
Salneurria: 16 €



tikoa, bizitza batera errazten ez dion ikaskidea du. Bien arteko harremanak berbideratzeko-edo, elkarrekin jarriko dituz irakasleak etxeko animaliei buruzko lan bat egiten.

Arrate Egaña errenteriarren kontakizunak, bere lanean ohikoa den moduan, «estilo nahiko errealista» badu, Mari Mar Agirreraren ilustrazioetan, ohi duenez, teknika desberdinak nahasten dira. «Liburu bakoitza mundu bat da», azaldu zuen atzo aurkezpenean, lankidetzaren emaitzarekin gustura. «Gaitxinatara izanik, papiri zaharrak izango balira bezala tratatu dituz ilustrazioak», argitu zuen, orrialdeetan antzematen diren zartadurak modukoak «antigoaleko» liburu baten itxura emateko asmoz eginak direla zehaztuz. Antigoaleko bitxi bat, alegia.

teko protagonismoa eman diona. «Is- toriotxo txinatar» baten bitartez, bi umeren arteko harremanak kontatu ditu Arrate Egañak. Bata, neska, heldu berria da hasiera batean arrotza egiten zaion herrira. Bestea, mu-

J oan Luis adiskide musikariak bidali berri dit doinu fin bat, ea letra jarriko ote niokeen, egu-berri-girokoa. Berez, gauari eginko himnoa da - 'Hymne à la Nuit' edo 'La nuit' -, Jean Philippe Rameau frantses musikagileak (1683-1764) sortua opera baterako, eta ezaguna egin dena 'Los chicos del coro' filmari esker.

Gerotzik, musika izan dut kullunkari zenbait egunetan. Haren kompasean sortuz joan dira errepika eta hiru estrofoak.

BAI HORIXE  
PELLO ESNAL

HAURRA  
JAIO DA



Gabon,  
Gabon dugu bihotzean;  
gauaren hutsean,  
Gabon bihotzean.

Haurra jaio da itsasoan,  
patera batean.  
Ama du ondoan begira,  
gauaren hutsean,  
izarrik ez dagoenean.

Gabon,  
Gabon dugu bihotzean...

Haurra jaio da gosetean,  
txabola batean.

Ama du ondoan begira,  
gauaren hutsean,  
izarrik ez dagoenean.

Gabon,  
Gabon dugu bihotzean...

Haurra jaio da kamioan,  
estalpe batean.  
Ama du ondoan begira,  
gauaren hutsean,  
izarrik ez dagoenean.

Gabon,  
Gabon dugu bihotzean;  
gauaren hutsean,

Gabon bihotzean.

Irudi bera jasotzen dute hiru estrofoek: erdian haurra, egoera larrian jaioa; eta alboan ama, haurrari begira, hura zaintzen. Azken batean, jaiotza bera da, nahiz eta elkarrengandik urrun egon lekuz eta denboraz. Bultzaka datorren biziak eta amaren harrerak bihurtzen dute gaua Gabon.

Oraindik ere, gauak gau, 'Gabon dugu bihotzean' kanta deza-kegu, biziari -besterenari eta geureari- bihotza zabalik.

## Tienda de Navidad

Tarjetas para felicitar esta Navidad.  
Regalos muy especiales para los tuyos.  
Y, para ti, la satisfacción de ayudar a los niños y niñas del mundo que más lo necesitan.

Te esperamos en: c/MIRACRUZ 32, BAJO.  
Teléfono: 943 27 11 61 • e-mail: gipuzkoa@unicef.es



Tenemos  
lotería de  
Navidad

Colabora:  
EL DIARIO VASCO

unicef   
únete por la infancia